



**ACTA DE LA JUNTA RECTORA DEL AULA DE CULTURA CELEBRADA EL DIA 16 DE MARZO DE 2018 EN EL AYUNTAMIENTO DE GETXO CON LA ASISTENCIA DE LOS MIEMBROS QUE SE MENCIONAN A CONTINUACION**

**KULTUR ETXEKO ZUZENDARITZA BATZORDEAK 2018KO MARTXOAREN 16AN EGINDAKO BILERAREN AKTA. BILERA GETXOKO UDALEAN EGIN ZEN, ETA HAUEK IZAN DIRA BERTARATUAK.**

**ASISTENTES**

**BERTARATUAK**

**PRESIDENTE**

D. Koldo Iturbe

**PRESIDENTEA**

Koldo Iturbe jauna

**VOCALES**

Dña. Elena Coria  
Dña. Keltse Eiguren  
D- Alvaro Gonzalez  
D. Ignacio Uriarte  
D. Joseba Arregui  
D. Ignacio Gamero  
D. Miguel Ibabe  
Dña. Susana de Cos  
Dña. Susana Andollo  
Dña. Paula Amieva  
Dña. Nerea Guijarrubia  
D. Ibon Rodriguez  
Dña. Teresa Escalante

**MAHAIKIDEAK**

Elena Coria andrea  
Keltse Eiguren andrea  
Alvaro Gonzalez jauna  
Ignacio Uriarte jauna  
Joseba Arregui jauna  
Ignacio Gamero jauna  
Miguel Ibabe jauna  
Susana de Cos andrea  
Susana Andollo andrea  
Paula Amieva andrea  
Nerea Guijarrubia andrea  
Ibon Rodriguez jauna  
Teresa Escalante andrea

Buenos días a todos, en primer lugar que gustaría recordar que en el orden del día no está el borrador del acta de la reunión anterior porque no hemos tenido tiempo para redactarla, por lo tanto, traeremos el acta a la siguiente reunión y simplemente nos gustaría pedir perdón por ello.

Egun on guztioi. Lehenik eta behin gogorarazi nahiko nuke gai zerrendan ez dagoela aurreko bilerako aktaren zirriborroa, ez dugulako izan idazteko denborarik, eta beraz, hurrengo bilerara ekarriko dugu akta; barkamena eskatu nahi genuen horrengatik.

1. Elevación al Ayuntamiento de la propuesta de modificación de los precios públicos del Aula de Cultura para el ejercicio 2018

El 13 de febrero, repartimos el acuerdo, no la Ordenanza, porque todavía no hay una ordenanza, o no se da una ordenanza de precios públicos, porque tiene que ser un acuerdo, el borrador lo entregamos el día 13 de febrero y las únicas aportaciones las ha hecho el Partido Popular, y por lo tanto, hemos enriquecido el texto inicial con las aportaciones del Partido

1. Udalari bidaltzea 2018ko ekitaldirako Kultur Etxearen prezio publikoak aldatzeko proposamena.

Otsailaren 13an akordioa banatu genuen, ez ordenantza, oraindik ez dagoelako ordenantzarik, edo ez dago prezio publikoen ordenantzarik, akordioa izan behar delako. Zirriborroa otsailaren 13an banatu genuen eta ekarpen bakarrak alderdi popularrak egin zituenez, hasierako testua osatu dugu alderdi popularraren ekarpenekin. Gogorarazi behar da ekarpenetako

## **GETXOKO KULTUR ETXEA - AULA DE CULTURA DE GETXO**

Villamonte A-8 - 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)

Tel.: 94 491 40 80 / 94 431 92 80 - Fax: 94 431 92 84 - E-mail: [kulturetxea@getxo.eus](mailto:kulturetxea@getxo.eus)



Popular. Recordar que una de las aportaciones también las hizo EH BILDU en la propia reunión, y eso también se ha recogido de alguna manera. Ha habido modificaciones que, principalmente están relacionadas con el traslado de competencias de la Junta de Gobierno Local.

El texto original contenía las competencias de la Junta de Gobierno Local, que era general y en este texto aparece de una manera más limitada y se expresan cuáles son los precios públicos que se pueden someter a la Junta de Gobierno Local que son las artes escénicas, entradas a los conciertos de Jazz, conciertos de Blues, conciertos de música clásica, y otro tipo de conciertos, y en los otros apartados también están establecidos y definidos otro tipo de talleres relacionados por ejemplo con el cine. También hemos recogido, como en otras muchas ordenanzas, una reducción para las familias numerosas que es una estandarizada familiar y en cuanto a los talleres, también hemos unificado los talleres y como aparecía en el texto inicial, no se recogen de uno en uno, sino que los hemos clasificado en grupos. Me gustaría mencionar también que en el texto que se ha repartido hay algunos precios públicos donde aparece el IVA repercutido, es decir, dividido del precio general y, como ya dijimos, si cambia ese IVA se recogerá en el Reglamento General una referencia al respecto.

Si cambia el IVA lo que cambia es el precio final, no nuestro precio, porque el precio se mantiene. Y si el IVA crece, aumenta, el precio final aumentará y si baja el IVA se reducirá. Por ejemplo, si el IVA del cine baja, nuestro precio será el mismo pero también se reducirá el precio final. Sin embargo nuestro precio no se modificará. Por lo tanto lo que se adecua, lo que se modifica, es la diferencia de IVA.

En la reunión del 13 de febrero, también nos comprometimos a hacer un borrador de los usos internos y de repartirlo, porque como ya saben no se puede recoger en este acuerdo una utilización gratis para las asociaciones locales y para ello se tiene que recoger mediante un reglamento interno, enviaremos el borrador, y

bat EH BILDU taldeak egin zuela bileran bertan, eta hori ere jaso da nolabait. Aldaketak egon dira, eta aldaketa horiek nagusiki Tokiko Gobernuaren Batzarraren eskumenak aldatzarekin lotuta daude.

Jatorrizko testuan Tokiko Gobernu Batzarraren eskumenak zeuden jasota. Orokorrean testu honetan mugatuago agertzen dira, eta Tokiko Gobernu Batzarrean jorratu daitezkeen prezio publikoa zeintzuk diren adierazten du. Hauek dira: arte eszenikoak, jazz kontzertuetako sarrerak, blues kontzertuetakoak, musikak klasikoko kontzertuetakoak eta beste kontzertu batzuetakoak. Beste ataletan ezarrita eta definituta daude baita ere adibidez zinemarekin lotutako beste tailer mota batzuk. Beste ordenantza askotan bezala, hemen ere jaso egin dugu familiako estandarra den familia ugarietzako murrizketa, eta tailerrei dagokienez, tailerrak ere bateratu egin ditugu. Hala, hasierako testuan agertu bezala, ez dira banaka jasotzen, taldeka sailkatuta baino. Adierazi nahiko nuke baita ere banatutako testuan BEZean eraginak izan dituzten prezio publiko batzuk agertzen direla, hau da, prezio orokorretik banatuta agertzen da BEZa, eta esan genuen bezala, BEZ hori aldatzen baldin bada Araubide Orokorrean horri buruzko erreferentzia bat agertuko da.

BEZa aldatzean azken prezioa aldatzen da, ez gure prezioa, prezioa mantendu egiten baita. Eta BEZ hazten baldin bada, gehitzen bada, azken prezioa ere gehitu egingo da, eta behera egiten badu gutxitu egingo da. Adibidez, zinemaren BEZ jaisten baldin bada, gure prezioa berdina izango da, baina azken prezioa ere murriztu egingo da. Hala ere, gure prezioa ez da aldatuko. Beraz, egokitzen dena, aldatzen dena, BEZaren kendura da.

Otsailaren 13ko bileran barneko erabilerei buruzko zirriborro bat egin eta banatuko genuela esan genuen, dakizuen bezala, ezin baita jaso akordio honetan doako erabilerarik tokiko elkarteentzat. Horretarako, barneko araubidearen bitartez jaso behar da, zirriborroa bidaliko dugu eta apirilaren 4ra arteko epea izango dugu egin

## GETXOKO KULTUR ETXEA - AULA DE CULTURA DE GETXO

Villamonte A-8 - 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)

Tel.: 94 491 40 80 / 94 431 92 80 - Fax: 94 431 92 84 - E-mail: [kulturetxea@getxo.eus](mailto:kulturetxea@getxo.eus)

tendremos un plazo hasta el 4 de abril para recoger las aportaciones que quieran hacer y para poder así enriquecer el texto. Por lo tanto, enviaremos por e-mail para que puedan proponer las modificaciones que deseen. El texto está tanto en euskera como en castellano.

Ibon Rodriguez comenta que este Reglamento Interno condiciona la opinión que puede tener EH Bildu tener sobre la Ordenanza de los precios públicos, porque en dicha Ordenanza se recogen los precios que deberían pagar por el uso de los locales municipales y con este Reglamento Interno creemos que se regula esa utilización que pueden hacer las asociaciones. Sin embargo, nos parece difícil aceptar la ordenanza y lo que recoge el Reglamento Interno sin saber lo que recoge el Reglamento y lo hemos recibido ahora, por lo tanto puede que también tendríamos que retrasar la aprobación de la Ordenanza porque esto no lo hemos recibido anteriormente porque están para nosotros muy relacionados lo que pone aquí, condiciona como ya digo la opinión que podemos tener al respecto de lo que acabo de mencionar. Y por eso nos gustaría retrasar la votación al respecto para que podamos analizar este documento que se nos entrega ahora.

Paula Amieva piensa exactamente lo mismo.

Koldo Iturbe comenta que el texto del acuerdo no cambiará por las Ordenanzas, porque se van a hacer modificaciones en ese texto y no en este.

La propuesta que traemos aquí es la que es y me gustaría pasar a la votación, después del debate, por supuesto.

En principio es una propuesta abierta, y desde el 13 de febrero ha estado disponible para hacer aportaciones, y esta propuesta que tienen ahora también tendrá un plazo para hacer aportaciones, por lo que como ya digo, este texto no cambiaría a pesar de hacer modificaciones en ese otro texto.

Paula Amieva, La propuesta que nos habéis pasado es diferente a la que nos disteis en febrero. La propuesta de acuerdo que se eleva hoy es diferente a la que se nos dio cuando nos informasteis, porque es la que nos comentabais que no podía ser esa propuesta porque tenía que pasar por una serie de cambios y demás y

nahi dituzuen ekarpenak egin eta jasotzeko eta horrela, testua osatzeko. Beraz, mezu elektronikoko bidez bidaliko dugu, nahi dituzuen aldaketak egin ahal izateko. Testua euskaraz eta gaztelaniaz dago.

Ibon Rodriguezek esan du barneko araubide honek baldintzatu egiten duela EH Bilduk prezio publikoei buruzko Ordenantzari buruz duen iritzia, Ordenantza horretan jasota daudelako udaleko lokalak erabiltzeagatik ordaindu beharko liratekeen prezioak, eta barneko araubide honekin uste dugu elkarrekin egin dezaketen erabilera hori arautu egiten dela. Hala ere, zaila egiten zaigu Ordenantza eta barne araubidean jasotakoa onartzea araubidearen edukia jakin gabe, eta oraintxe jaso dugu araubide hori. Beraz, baliteke ordenantza onartzea ere atzeratu behar izatea, aurretik jaso ez dugulako, eta gure iritziz hemen jartzen duenak lotura asko baitu guztiarekin. Esan dudak bezala, baldintzatu egiten du aipatu dudanak gure iritzia. Eta horregatik, bozketa atzeratzea gustatuko litzaidake, orain jaso dugun agiria aztertu ahal izateko.

Paula Amievak berdina pentsatzen du.

Koldo Iturbek esan du akordioaren testua ez dela Ordenantzengatik aldatuko, aldaketak testu horretan egingo baitira eta ez honetan.

Hona ekarri dugun proposamena hau da, eta bozkatzea gustatuko litzaidake, eztabaidatu ondoren, noski.

Hasiera batean proposamen irekia da, eta otsailaren 13tik eskuragarri egon da ekarpenak egiteko, eta orain eskuartearen duzuen proposamenak ere ekarpenak egiteko epe bat izango du, eta beraz, esan bezala, testu hau ez da aldatuko nahiz eta beste testuan aldaketak egin.

Paula Amievak esan du otsailean jasotako proposamena eta orain jasotakoa ezberdinak direla. Gaurko akordio proposamena honi buruzko informazioa eman zigutenaren ezberdina da, aldaketak eta bestelakoak izan behar zituen proposamen hori baita, eta hau ezberdina da, oker ez banago, deialdiarekin

## GETXOKO KULTUR ETXEA - AULA DE CULTURA DE GETXO

Villamonte A-8 - 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)

Tel.: 94 491 40 80 / 94 431 92 80 - Fax: 94 431 92 84 - E-mail: [kulturetxea@getxo.eus](mailto:kulturetxea@getxo.eus)

esta es diferente, que es la que llegó, si no me equivoco con la convocatoria. Entonces sí que creemos, como ha comentado IBON, que al final lo que nos acabáis de dar, y por eso te lo pedí yo el otro día por un cauce informal, este Reglamento es necesario para saber cómo se condiciona esta propuesta de acuerdo y qué podemos proponer para modificar o no la propuesta de acuerdo de hoy. Entonces nos parece que es complementario y necesario saber cómo es uno para poder saber el otro. O sea, nosotras de esto tenemos una opinión, pero es que nos falta y de hecho nos seguía faltando hasta hace cinco minutos esta información para poder saber muchas cosas de las que aquí están recogidas, con lo cual, si ahora tenemos esto, necesitamos un tiempo para poder leer y valorar si tenemos que hacer aportaciones y cómo deberían de ser esas aportaciones.

**KOLDO:**

Como has llegado tarde igual no has oído mi explicación. Como ya he dicho, el 13 de febrero, hace más de un mes, tenían el texto disponible, por lo tanto ha habido oportunidad de reunirse conmigo y expresamente nosotros no nos hemos reunido con GUK para hablar al respecto, y este texto que está hoy sobre la mesa, si no me equivoco, está disponible desde el martes.

Ya he explicado las modificaciones en un primer momento, y dichas modificaciones son bastante normales y aceptables, y son algo que se puede analizar en cinco minutos y no creo que sea necesario de ninguna manera reflexionar más al respecto. Como ya digo, este texto ha estado disponible desde el 13 de febrero.

¿Alguien más desea intervenir al respecto?

Pasamos a la votación

**VOTOS A FAVOR:** PNV 6, PSOE 1, PP 3

**ABSTENCIONES:** 0

**VOTOS EN CONTRA:** 2 EH BILDU y 2 GUK

Por lo tanto, queda aprobada, y hasta el 4 de abril existe la posibilidad de hacer aportaciones o propuestas a cerca del texto que acaba de ser entregado.

2. - Dar cuenta de la Liquidación del ejercicio 2017 del Organismo Autónomo Aula de Cultura de Getxo

batera iritsi dena. Orduan uste dugu, Ibonek esan duen bezala, azkenean horixe dela jaso duguna, eta horregatik eskatu nizun aurreko egunean, informazioa izateko. Araubide hau beharrezkoa da jakiteko akordio proposamen hau nola baldintzatzen den, eta zer proposatu dezakegun gaur akordio proposamena aldatzeko edo ez aldatzeko. Orduan, uste dugu osagarria eta beharrezkoa dela jakitea nolakoa den bat, bestea nolakoa den jakiteko. Hau da, guk iritzi bat dugu, baina informazioa falta izan zaigu orain dela bost minutura arte, hemen jasota dauden gauza asko jakin ahal izateko, eta beraz, orain hau baldin badugu, denbora behar dugu irakurtzeko eta baloratzeko ekarpenak egin behar ditugun edo ez, eta ekarpen horiek nolakoak izan beharko liritekeen erabaki behar dugu.

**KOLDO:**

Berandu iritsi zarenez, beharbada ez duzu entzun eman dudan azalpena. Esan dudan bezala, otsailaren 13tik, orain dela hilabete baino gehiagotik, testua eskuragarri egon da, eta beraz, aukera izan duzue nirekin batzeko, eta bereziki gu ez gara batu GUK taldearekin horri buruz hitz egiteko, eta testu hau gaur denok daukagu, eta oker ez baldin banago, asteartetik dago eskuragarri.

Azaldu ditut aldaketak jada, eta aldaketa horiek nahikoa normalak eta onargarriak dira, eta bost minutuan aztertu daitekeen zerbait da, eta ez dut uste horri buruz gehiago hausnartu behar denik. Esan dudan bezala, testu hau eskuragarri egon da otsailaren 13tik.

Norbaitek zerbait gehiago gehitu nahi du honi buruz?

Bozkatu egingo dugu beraz

**ALDEKO BOTOAK:** PNV 6, PSOE 1, PP 3

**ABSTENTZIOAK:** 0

**KONTRAKO BOTOAK:** EH BILDU 2 eta GUK 2

Beraz, onartu egin da, eta apirilaren 4ra arte orain eman dizuegun testuari buruzko ekarpenak eta proposamenak egin ahal izango dira.

2. - Getxoko Kultur Etxea Organismo Autonomoaren 2017ko ekitaldiko likidazioaren berri ematea

## **GETXOKO KULTUR ETXEA - AULA DE CULTURA DE GETXO**

Villamonte A-8 - 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)

Tel.: 94 491 40 80 / 94 431 92 80 - Fax: 94 431 92 84 - E-mail: [kulturetxea@getxo.eus](mailto:kulturetxea@getxo.eus)



Se da cuenta de la liquidación del ejercicio 2017 del Organismo Autónomo Aula de Cultura de Getxo. Se ha enviado la memoria, si alguien desea hacer alguna pregunta al respecto. Al no haber preguntas pasamos al siguiente punto del orden del día que son los informes del señor presidente.

#### INFORMES DEL SR, PRESIDENTE

25 de febrero hubo un musical de teatro en Andrés Isasi Música Eskola llamado "Goazen" y hubo dos funciones a las 16:00 y a las 18:00 y se acabaron todas las entradas

3 marzo Dantza Plazan en la Plaza de la estación de Algorta, no sé si han visto las imágenes, pero fue una imagen extraordinaria ver cuánta gente había en aquella plaza y el ambiente que había aquel día.

11 marzo teatro en Andrés Isasi Musika Eskola "circuito de mujeres en escena" y hubo 160 asistentes

Además para terminar me gustaría decir, al respecto de mis informes vamos a abrir el día 9 de abril el Aula de Cultura de Romo y tendremos unos servicios en la Casa de Cultura que serán Euskaltegi, Biblioteca, Gazteleku también diferentes salas, salas de ensayo, y como ya saben todavía no se han finalizado las obras de la Plaza de alrededor y todavía estamos en el proceso de colocación de unos columpios, que serán colocados muy pronto.

Al principio el horario de apertura será de 08:00 a 14:30 y de 16:00 a 22:00 de la noche de lunes a jueves y de 09:00 a 13:00 los sábados. El horario anterior era hasta los viernes, perdón.

El horario de la biblioteca será de 08:30 a 14:30 y de 16:00 a 20:30 de lunes a viernes y de 09:00 a 13:00 los sábados.

Para ello tendremos que hacer un traslado y será bastante problemático porque en el Euskaltegi municipal y en la Biblioteca Gobela habrá más problemas. La Biblioteca de Gobela estará cerrada desde el 19 al 7 de abril, desde el 19 de este mes por supuesto, y habrá un plazo especial para devolver los libros porque no tendremos la oportunidad de hacerlo de otra manera, es decir, esa devolución de los libros

Getxoko Kultur Etxea Organismo Autonomoaren 2017ko ekitaldiko likidazioaren berri eman da. Memoria bidali da, norbaitek horri buruzko galderaren bat egin nahi baldin badu. Galderarik ez dagoenez, gai zerrendako hurrengo puntura pasatuko gara, presidente jaunaren txostenak alegia.

#### PRESIDENTE JAUNAREN TXOSTENAK

Otsailaren 25ean antzerki musical bat egon zen Andrés Isasi Musika Eskolan, "Goazen" deiturikoa, eta bi saio egon ziren, 16:00etan eta 18:00etan; sarrera guztiak bukatu ziren.

Martxoaren 3an Dantza Plazan izan zen Algortako geltoki plazan, eta ez dakit argazkirik ikusi duzuen, baina izugarria izan zen ikustea zenbat jende zegoen plaza horretan, eta egun horretako giroa paregabea izan zen.

Martxoaren 11n Andrés Isasi Musika Eskolan "Emakumeak agertokietan zirkuitua" izan zen, eta 160 pertsona bertaratu ziren.

Gainera, bukatzeko esan nahiko nuke, nire txostenei dagokienez, apirilaren 9an Erromoko Kultur Etxea irekiko dugula, eta zerbitzu batzuk izango ditugula bertan, besteak beste Euskaltegia, Liburutegia, Gaztelekua, aretoak, entsegu-gelak, eta abar. Dakizuen bezala oraindik ez dira bukatu inguruko plazako obrak, eta oraindik kulunkak jartzeko daude, baina laster jarriko dituzte.

Hasieran, ordutegia 08:00etatik 14:30era eta 16:00etatik gaueko 22:00etara izango da astelehenetik ostegunera, eta larunbatetan 09:00etara 13:00etara. Aurreko ordutegia ostiralera arte zen, barkatu.

Liburutegiko ordutegia 08:30etik 14:30era eta 16:00etatik 20:30era izango da astelehenetik ostiralera eta larunbatetan 09:00etatik 13:00etara.

Horretarako, lekualdaketa bat egin beharko dugu eta nahikoa arazo emango ditu, udaleko Euskaltegian eta Gobelako liburutegian arazoak sortuko baitira. Gobelako liburutegia itxita egongo da 19tik apirilaren 7ra, hile honetako hilaren 19tik noski, eta epe berezi bat egongo da liburuak itzultzeko, ez dagoelako beste modurik hori egiteko, hau da, epe horretan itzuli beharko diren liburuen itzulketa horiek. Aurrerago horri

## GETXOKO KULTUR ETXEA - AULA DE CULTURA DE GETXO

Villamonte A-8 - 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)

Tel.: 94 491 40 80 / 94 431 92 80 - Fax: 94 431 92 84 - E-mail: [kulturetxea@getxo.eus](mailto:kulturetxea@getxo.eus)



que tendrán que devolver en este plazo. Más adelante daremos más información al respecto de los otros servicios y a medida que vayan abriéndose daremos más información detallada y también pondremos en marcha un proceso de visitas guiadas para que los ciudadanos puedan acudir.

No sé si alguien desea hacer alguna pregunta o intervenir al respecto.

Guk pregunta sobre la equipación de las salas de ensayo de Romo Kultur Etxea, ya que en alguna reunión anterior se comentó que iban a tener equipamiento parecido a lo que hay por el mercado.

Manu Alkiza comenta que inicialmente se hizo un concurso para dotarlas y se adjudicó a una empresa, pero lo que ha ocurrido es que el concesionario ha deshecho la empresa, por decirlo de alguna manera, y nos ha dejado tirados, por decirlo así.

Las salas de ensayo estarán abiertas, se podrá ensayar y cualquiera lo podrá utilizar. Sin embargo no habrá instrumentos musicales.

Una pregunta, pero el precio cuando se puso era por lo que comentaba Susana, no? que era en condiciones similares a lugares que ya existen para hacer ensayos, y en lugares como los que vosotros hacíais referencia si hay equipamiento, entonces entendemos que sí que va a haber, pero que no sabéis cuáles

Si va a haber equipamiento, estamos a la espera de una nueva contratación. El material que se pidió es similar a los propios de una sala de ensayo como puede ser Bilbo Rock o como pueden ser las de la zona. Os remitiremos lo que se licitó en su día. Pero en cuanto a lo que preguntas, expresamente hemos puesto un precio público por utilizar ese aula, esa sala, haya instrumento o no y aquí eso no se distingue, no se habla de una grabación, del uso de un instrumento, es un precio público por el uso de la sala, y ese es el precio que se ha comparado, es decir el alquiler de la sala.

Es curioso porque claro tengo que votar un precio sin saber lo que tiene dentro.

Ese es el precio de la sala, vale, pero yo dentro de la sala no sé lo que hay. Entonces tampoco

buruzko eta beste zerbitzuei buruzko informazio gehiago emango dugu, eta irekitzen joaten diren heinean informazio zehaztu gehiago emango dugu. Horrez gain, herritarrentzako bisita gidatuak eskainiko ditugu.

Ez dakit norbaitek galderaren bat egin nahi duen edo zerbait esan nahi duen.

GUKek Erromoko Kultur Etxeko entsegu-geletako ekipamenduari buruz galdetu du, aurreko bileraren batean esan baitzen gaur egun merkatuan dagoen ekipamenduen antzekoa izango dutela.

Manu Alkizak esan du hasiera batean deialdi bat egin zela horiek hornitzeko eta enpresa bati eman zitzaioela adjudikazioa, baina hartzekodunak enpresa deuseztatu zuela, eta beraz, nolabait esateko bakarrik utzi gaituztela.

Entsegu-gelak irekita egongo dira, edozein joan ahal izango da entseatzera eta horiek erabiltzera, beraz. Hala ere, ez da egongo musika instrumenturik.

Galdera bat, baina jarri zeneko prezioa Susanak adierazi duena da, ezta? Entseguak egiteko antzeko lekuetako baldintza antzekoak ziren, eta zuek adierazitako lekuetan badago ekipamendua, eta beraz ulertzen dugu egongo dela ekipamendua, baina ez dakizuela nolakoa.

Ekipamendua egongo da, kontratazio berria egiteko zain gaude. Eskatutako materiala entsegu-gela batean egoten dena da, besteak beste Bilbo Rocken edo beste inguruko leku batzuetan. Bere egunean lizitatu zena bidaliko dizuegu. Baina galdetzen duzunari dagokionez, prezio publiko bat jarri dugu gela hori, areto hori, erabiltzeko, instrumentuak egon edo ez, eta hemen hori bereizi egiten da. Ez gara grabaketa batez ari, instrumentu bat erabiltzeaz, prezio publikoa gela erabiltzeko da alegia, eta horixe da erkatu den prezioa, hau da, gelaren alokairuarena.

Bitxia da, noski, prezio baten inguruan bozkatu behar dudalako, barruan zer egongo den jakin gabe.

Horixe da gelaren prezioa, ados, baina nik ez dakit zer dagoen gelaren barnean. Orduan ez

## GETXOKO KULTUR ETXEA - AULA DE CULTURA DE GETXO

Villamonte A-8 - 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)

Tel.: 94 491 40 80 / 94 431 92 80 - Fax: 94 431 92 84 - E-mail: [kulturetxea@getxo.eus](mailto:kulturetxea@getxo.eus)

sé si me parece bien o no. Creo que en este caso la información ha sido muy escasa.

Lo repito, a pesar de que no haya nada dentro del aula, de la sala el precio será el mismo.

Pasamos al siguiente punto del orden del día que se trata de los ruegos y preguntas, pero dos son preguntas de Ciudadanos y Santi no está aquí hoy. Si no está no podemos responder.

Como ya digo también había otra pregunta de GUK, se ha pedido por escrito y aquí está la respuesta por escrito para GUK, respondiendo a lo que ha solicitado, dicha pregunta hace referencia a:

- a) Tipo de relación laboral que tienen los empleados y las empleadas del Organismo Autónomo que desempeñan los puestos de la RPT.
- b) Quien o que área dispensa al Organismo Autónomo el asesoramiento jurídico en materia de contratación pública?
- c) ¿Ha valorado la presidencia plantear al consejo Rector la posibilidad de abrir un debate sobre los aspectos señalados en la pregunta 2?
- d) ¿Quién es la persona encargada de colgar en el perfil del contratante la información que se recoge respecto a la publicidad de formalización de contratos, convocatorias y actas en la mesa de contratación?

Las respuestas entregadas por escrito han sido las siguientes:

- a) Se entrega una tabla con el tipo de relación laboral del personal de Organismo Autónomo.
- b) El Organismo Autónomo Aula de Cultura en su RPT dispone de una plaza de Técnico de Administración General que es quien se encarga del asesoramiento jurídico al Organismo Autónomo.
- c) El debate sobre necesidad de un TAG, entre otros, para el asesoramiento en temas de contratación fue compartido con el resto de los grupos políticos en el proceso de creación del puesto de TAG en la RPT del Aula de Cultura de Getxo en 2017. Concretamente una de las razones que se expuso para justificar la

dakit ongi iruditzen zaidan edo ez. Uste dut kasu honetan oso informazio gutxi eman dela.

Berriz ere esango dut, nahiz eta gelaren barnean ezer ez egon, prezioa berdina izango da.

Gai zerrendaren hurrengo puntura pasatuko gara, galderak eta eskaerak, baina bi galdera Ciudadanos taldearenak dira, eta Santi ez dago hemen. Ez baldin badago, ezin dugu erantzun.

Esan bezala, GUK taldearen beste galdera bat zegoen, eta idatziz eskatu da, eta hemen dago GUK taldearentzat emandako erantzuna, eskatutakoari erantzuten diona. Galdera hori hauei buruzkoa da:

- a) LPZko lanpostuak dituzten Organismo Autonomoko langileek duten lan-harremana.
- b) Kontratazio publikoari dagokionez, nork edo zein arlok ematen dio aholkularitza juridikoa organismo autonomoari?
- c) Presidentetzak baloratu du Zuzendaritza Batzordeari planteatzea 2. galderan adierazitako alderdiei buruzko eztabaida bat egitea?
- d) Nork jartzen du kontratatzailearen profileen kontratuen formalizazioari, deialdiei eta kontratazio-mahaiko aktei buruzko publizitatearen informazioa?

Hauek dira idatziz eman diren erantzunak:

- a) Organismo Autonomoko langileen lan-harremanari buruzko taula entregatu da.
- b) Kultur Etxeko Organismo Autonomoak bere LPZn administrazio orokorreko teknikari plaza bat du, eta berak ematen dio aholkularitza juridikoa organismo autonomoari.
- c) Administrazio orokorreko teknikari bat behar izatearen eztabaida, besteak beste kontratazioko gaien inguruko aholkularitza emateko, gainerako talde politikoekin partekatu zen 2017ko Getxoko Kultur Etxeko LPZn AOT lanpostua sortzeko prozesuan. Bereziki, Organismo Autonomoarentzat AOT bat behar zela justifikatzeko arrazoietako bat izan zen Kultur

## GETXOKO KULTUR ETXEA - AULA DE CULTURA DE GETXO

Villamonte A-8 - 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)

Tel.: 94 491 40 80 / 94 431 92 80 - Fax: 94 431 92 84 - E-mail: [kulturetxea@getxo.eus](mailto:kulturetxea@getxo.eus)

necesidad de un TAG propio para el Organismo Autónomo fue el volumen de expedientes de contratación que existe en el Aula. Por todo ello la presidencia del organismo autónomo entiende que existiendo una plaza de T.A.G. en la RPT del Organismo Autónomo, y estando sobradamente justificado, no es necesario abrir un debate, ya que además la técnica del Aula de cultura ya recibe asesoramiento del área de contratación del ayuntamiento cuando así lo requiere.

d) La persona encargada de colgar en el perfil del contratante la información que se recoge respecto a la publicidad de formalización de contratos, convocatorias y actas de la mesa de contratación es la propia técnica.

Etxeko kontratazio espedienteen bolumena oso handia zela. Horregatik guztiagatik, organismo autonomoko presidentetzak uste du organismo autonomoko LPZn AOT plaza bat egonik eta behar beste justifikatuta egonik, ez dela beharrezkoa eztabaidatzea, Kultur Etxeko teknikariak gainera jasotzen baitu udaleko Kontratazio Ataleko aholkularitza hala behar duenean.

d) Kontratatzailearen profilean kontratuen formalizazioari, deialdiei eta kontratazio-mahaiko aktei buruzko publizitatearen informazioa teknikariak berak jartzen du.

Y sin más temas que tratar se dio por finalizada la reunión

Aztergai gehiagorik ez dagoenez gero, batzarra amaitutzat eman da.



Izpta./Fdo.: Manu Alkiza  
Kontseilu Artezkariaren Idazkaria  
Secretario del Consejo Rector



Izpta./Fdo.: Koldo Iturbe  
Kontseilu Artezkariaren Lehendakaria  
Presidente del Consejo Rector

**GETXOKO KULTUR ETXEA - AULA DE CULTURA DE GETXO**

Villamonte A-8 - 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)

Tel.: 94 491 40 80 / 94 431 92 80 - Fax: 94 431 92 84 - E-mail: [kulturetxea@getxo.eus](mailto:kulturetxea@getxo.eus)